



Ostalaritzan Basque Wine: herrialde anitz baten aberastasuna

GIPUZKOAKO, BIZKAIKO ETA ARABAKO OSTALARITZA ELKARTEEK (AHB, AEHG, SEA Hostelería eta GasteizOn) eta Hazi fundazioak hitzarmen bat sinatu zuten 2021eko ekainean Basque Wine aterkipean bildutako Euskadiko edariak sustatzeko helburuarekin.

Lankidetzaz hau 'Gure Ostalaritzan, Basque Wine' programarekin bat egin nahi izan duten ostalarien atxikimendurekin gauzatu da. Borondatezko parte-hartze horrekin, beren establezimenduetan Euskadin ekoizten diren kalitatezko edarien gama osoa eskaintze-

ko konpromisoa hartu zuten, eta trukean, hainbat pizgarri jaso zituzten: markaren promozio opariak, produktuen zati bat doan edo edariak erosteko deskontuak.

Basque Wine Eusko Jaurlaritzak bultzatutako promozio marka bat da, Euskadin egiten diren ardo, sagardo eta artisau garagardoak merkaturatzeko bide berriak bilatzeko. Ildo horretan, ostalaritza oso kanal garrantzitsua da, beste batzuen aurrean uzta propioko produktuen salmenta lehenesten badu. Halaber, irailean, ikasturte berriaren

hasiera aprobetxatuz, programari atxikitako establezimenduetako barrako eta aretoko langileentzako prestakuntza-programa jarri zen abian.

Horretarako, prestakuntza-bideoak garatu ziren, ostalariari saltzeko argudioak emanez, eskaera orokorra-

Maiatzetik aurrera, sommelier zerbitzua jarriko da abian programara atxikita dauden bazkideentzat.

ri aurre egiteko eta Basque Wine produktuak erosteko erabakia sustatzeko. Bideo horiek barrako edo aretoko langileei zuzenduta daude bereziki, eta euskaraz zein gaztelaniaz aurki ditzakezu Gipuzkoako Ostalaritza Elkartearen Youtubeko kanalean.

Maiatzetik aurrera, sommelier zerbitzua jarriko da abian, programara atxikita dauden establezimenduentzat, joera berriei, uztartzei eta abarri buruzko zalantzak argitzeko. Programarekin bat egin dutenek, laster jasoko dute informazio gehiago.